# Kanpo ekintzaren plana **2021-2024** Plan de Acción Exterior




Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

**Kanpo Ekintzaren Zuzendaritza Nagusia**
**Dirección General de Acción Exterior**
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Departamento de Relaciones Ciudadanas

PLAN DE ACCIÓN EXTERIOR
KANPO EKINTZAREN PLANA
2021-2024

# aurkibidea


**05** Sarrera

**08** Aurrekariak

**13** Ikuspen estrategiko berria

**15** Planaren helburuak

**16** Ardatz estrategikoak, ekintza-lerroak eta jarduketak

16 Ardatz estrategikoak

18 Ekintza-lerroak

19 Jarduketak

**33** Gobernantza eta jarraipena

33 Gobernantza

34 Gobernantza eta jarraipena

**37** Aurrekontua

# Sarrera

Dokumentu honek Kanpo Ekintzaren Zuzendaritza Nagusiaren (KEZN) Kanpo Ekintzaren Plana (KEP) garatzen du, 4 urteko epearekin (2021-2024), Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretuak ematen dion eskumen-esparruaren arabera.

Planaren helburu nagusia da Nafarroa Europan eta munduan kokatzea bere komunitatearentzako aliantzak eta lankidetza bilatzen dituen eragile global gisa. Horretarako, batetik, Europako eta munduko erakunde eta sareetan presentzia ofiziala sustatu eta koordinatu behar da, Nafarroarako garrantzitsuak diren informazio eta ekimen guztiak monitorizatzeko eta gure erkidegoaren interes estrategikoekin gurutzatzeko, eta, bestetik, gure mugako kokapena, kanpoan dauden gure herritarrekiko harremana eta lurraldearen irudiaren proiekzioa aprobetxatu.

Planak berarekin du partaidetza-prozesu bat. Prozesu horren esparruan Europako proiektuak kudeatzen dituzten pertsonen, edukiari lotutako eskumenak dituzten Nafarroako Gobernuko Zuzendaritza Nagusien, KEPeko langileen eta eragile sozioekonomiko, unibertsitario eta berrikuntza arlokoen iritzia bildu da, lau lan-saioren eta galdetegi baten bidez. Prozesuan parte hartzen duten pertsonen ekarpenekin aberastutako KEPeko oinarrien dokumentu bat hartu da erreferentzia gisa.

Kanpo Ekintzaren Planak bere egiten ditu Genero Berdintasunerako 2020-2025 Europako Estrategiak jasotzen dituen printzipioak. Estrategia horrek genero-berdintasunaren arloko helburu estrategikoak eta funtsezko ekintzak ezartzen ditu, bai eta arlo horretako Estatuko araudia eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea bete behar direla ere.

**1. IRUDIA** KEP 21-24 METODOLOGIA.




KEZNaren eta prozesuan nahasitako pertsonen arabera, Kanpo Ekintzaren Plana aukera ona da honako hauek egiteko:

- Nafarroako kanpo-ekintza planifikatu, koordinatu eta bultzatzea, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin elkarlanean.
- Nafarroaren interesak Europar Batasunaren aurrean ordezkatzea.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Europako eta/edo nazioarteko erakundeen arteko harremanak koordinatu eta bultzatzea, Nafarroarentzat interesgarriak diren proiektu eta programen jarraipena egiteko eta Nafarroaren kanpo-proiekzioa indartzeko aukera ematen duten nazioko eta nazioarteko erakundeekin hitzarmenak, akordioak eta protokoloak egiteko.
- Mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetza-harremanak bultzatu eta koordinatzea.
- Atzerrian dauden Nafarroako herritarrekiko harremanetako eta arretarako politika planifikatzea.
- Nafarroaren irudia sustatzea, haren kanpoko sustapenaren eta proiekzioaren bidez.

- Administrazioaren nazioartekotzea babestea eta sustatzea, Europako funtsekin finantzatutako proiektuetan parte hartuz.

Laburbilduz, hurrengo lau urteetan Kanpo Ekintzaren Zuzendaritza Nagusiaren politikak gidatuko dituen ibilbide-orria ezarri nahi du KEPek. 2021-2027 Urteetarako Finantza Esparruan Europar Batasunaren programazio-aldi berri baten hasierarekin bat egingo du une horrek, hain zuzen ere Nafarroarentzat aukeraz betetako eta aprobetxatu beharreko aldian.

# Aurrekariak

1982az geroztik, Nafarroako Gobernuak Kanpo Ekintzaren arloan dihardu, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak (LORAFNA) finkatutako esparruan. Lege horrek, alde batetik, Foru Komunitateak Europar Batasuneko gaietan eta erakundeetan parte hartzeko formula ezartzen du eta, bestetik, haren interesak defendatzeko nazioarteko eskumen-esparrua.

Azken urte hauetan, areagotu egin da Nafarroako Gobernuaren kanpo-ekintza hori Bruselako Ordezkaritza berriro irekitzearekin, sare eta foro berrietara atxikitzearekin, eta mundu mailako ekitaldietan parte hartzearekin. Haren ekimenetako batzuk oso balioetsiak izan dira, hala nola hondakinen politika, San Frantziskoko klima-aldaketari buruzko gailurrean (COP) nabarmendu zena munduko 12 aitzindarienen artean (Tokio, Amsterdam edo New Yorkekin batera). Horrez gain, enpresa eta lurraldea nazioartekotzeko eta atzerriko inbertsioa erakartzeko ahaleginak ere egin dira. Esparru horretan, Nafarroaren III. Nazioarteko Plana (2017-2020) eta SODENAren lan espezializatua nabarmentzen dira.

Bestalde, Europako Ekintzak tradizio luzea du Nafarroako Gobernuan. Departamentuen izen eta atxikipen desberdinekin, beti jo izan da beharrezkotzat Europar Batasuneko erakundeetan parte hartzea. Hain zuzen ere, Nafarroak presentzia du Europako erabakietan honako erakunde hauetan zuzenean parte hartuz: Europar Batasuneko Kontseiluan, Europar Batzordeko hainbat batzordetan, Europar Batasunaren Inguruko Gaietarako Konferentzian (CARUE) eta Eskualdeen Europako Batzordean (CDR). Batzorde horren ordezkaritza lehendakariak du.

2016ko urtarrilaren 25ean argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean abenduaren 29ko 33/2015 FORU AGINDUA, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariarena. Agindu horren bidez sortu zen Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzako Ekintza Batzordea.

2016ko uztailaren 27an, Gobernuak lehen aldiz onartu zuen, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren parte-hartzearekin, Europako Ekintza Plana, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritzak Bruselan egindako ekintzak neurtu eta kuantifikatzeko aukera eman zuena.

Europako Ekintza Plan horren bidez, Nafarroak Europako erakunde eta organismoetan duen presentzia indartu, Nafarroako entitateek EBko funtsak lortzean zuten itzulera hobetu eta Foru Komunitatea atzerrian sustatzeko estrategia babestu nahi izan zen.

Gainera, 2017an, Nafarroako Gobernuak Nafarroarentzako egoitza propio berri bat berreskuratu zuen Bruselan, Europako Parlamentutik eta Eskualdeen Europako Batzordetik 200 metro eskasera. Bilera eta hitzaldietarako aretoak zituen eta, horri esker, bere ahotsa izan zuen Europako hiriburuan, Europako edo nazioarteko 1.500 erakunde baino gehiago, 160 enbaxada eta Europako elkarte eta federazio profesional gehienak, atzerriko 60 banku baino gehiago, nazioarteko 1.700 enpresa, abokatu eta aholkularien nazioarteko 300 kabinete baino gehiago eta nazioarteko 21 eskola dauden hirian.

Bruselako Ordezkaritzaren bidez, Nafarroak S3 espezializazio adimenduneko estrategiekin lotutako hainbat saretan parte hartzen du eta sare horien buru da, hala nola VANGUARD INITIATIVE (S3ri lotutako 36 eskualde), ERRIN (European Regions Research and Innovation Network), edo EURADA (European Association of Development Agencies, SODENArekin koordinatuta), eta elkarlanean aritzen da Espainiaren Belgikako eta Luxenburgoko Merkataritza Ganbera Ofizialarekin. Nafarroako Gobernuak, gainera, sare sektorialetan parte hartzen du bere departamentuen bidez: Climate Group, Convant of Majors, ICLEI, Regions 4, ACR+, EUROMONTANA, NPLD, Social Economy Europe edo REVES izenburukoetan, besteak beste.

Urte horretan bertan, 2017an, Nafarroa sartu egin zen Akitania Berria Euskadi Nafarroa Eskualdean, hain zuzen ere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1082/2006 (EE) Erregelamenduari lotutako Lurralde Lankidetzako Europako 68 Elkarteetako (LLEE) batean. Horien helburu nagusia Europako ikuspegitik lurralde-lankidetza zeharkakoa eta globala garatzea da.

Euroeskualdeak 101.678 km$^2$-ko azalera du, 8.745.629 biztanle, 3.541.000 enplegu, 486.176 enpresa eta 11 unibertsitate. Foru Komunitatea Euroeskualdean sartu zenetik, Nafarroako erakundeek haren finantza-tresnak baliatu ahal izan dituzte, bai norgehiagokako bi laguntza-deialdien bidez (Euroeskualdearen Herritartasunari eta Ezagutzaren Ekonomiari buruzkoak, hurrenez hurren), bai lankidetza estrategikoak deiturikoen bidez.

Nafarroako Gobernua presente dago eskualde anitzeko beste lankidetza-erakunde batzuetan ere, eta mugaz gaindiko eta eskualde arteko politika aktiboa du. Hori adierazten du Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziako (CRPM) kide izateak. Erakunde horrek Europar Batasuneko 24 Estatuetako 150 Eskualde baino gehiago biltzen ditu, eta 200 milioi pertsona inguru

ordezkatzen ditu. Kanpaina bat egiten du Europako lurraldearen garapen orekatuagoa lortzeko. Baita Pirinioez Gaindiko Konferentzia Atlantikoa (CAT) erakundeko kide izateak ere. Bidasoaren bi aldeetako agintari publikoek 2007an sortutako lankidetza-erakundea da, hurbileko mugaz gaindiko lankidetza indartzeko xedez; hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Pirinio Atlantikoetako Departamentuko Kontseiluarekin, Akitania Berria Eskualdeko Kontseiluarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aglomerazioko Erkidegoarekin bat egin du, eta Pirinio Prefekturak ere parte hartzen du.

Foro horiek lankidetza-eremu tradizionalei gehitzen zaizkie. Horien artean dago, besteak beste, Pirinioetako Lan Komunitatea (PLK), Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Operatiboa Kudeatzeko Agintaritza (Interreg IVA – POCTEFA) gisa jarduten duena. Erakundeak 190 milioi euro baino gehiagoko funtsa kudeatu zuen 2014-2020 aldian (20 milioi baino gehiago jaso zituzten Nafarroako erakundeek, hala nola udalek, enpresek, unibertsitateek, zentro teknologikoek, sozietate publikoek…). Halaber, Nafarroak administrazioen arteko lankidetza historikoa du Pirinio Atlantikoetako Departamentuarekin (Akitania Berria), 2020. urtean berritutako hitzarmen baten bidez. Hitzarmen horrek emaitzak eman ditu segurtasun eta babes zibil, kultura, gazteria, kirol eta beste hainbat arlotan.

Europan presentzia izateko beste modu bat EBko finantza-aldi bakoitzean norgehiagokako europar proiektuak garatzeko egiten diren deialdietan parte hartzea da. Espainia Europar Batasunean sartu zenetik, 1986an, Nafarroako Gobernuak askotariko erakundeei lagundu die finantzaketa bilatzen, eta ezagutza handia bereganatu du Erkidegoarentzat interesgarriak diren programa eta tresnei dagokienez. Azken urteotan, gainera, hainbat neurri ezarri dira diru-bilketa hori hobetzeko, Foru Komunitateko Administrazioak zuzenean kudeatzeko gure eskualdeari esleitutakoez gain. Adibidez:

- Nafarroako erakundeek parte hartzen duten programa, tresna, deialdi eta proiektuei buruzko informazio eguneratua eta sariak, ekitaldien agenda, buletina (newsltetter)… eta albisteak jasotzen dituen webgune bat sortzea.

- Nafarroako Gobernuko departamentu guztietarako aukeren diagnostikoa egitea Europako Batzordearen deialdietan.

- Prestakuntza-jarduerak egitea, bai zuzenekoak, bai NUPekin lankidetzan, esaterako Europako I+G+B proiektuak sustatu eta kudeatzeko espezializazio-ikastaroa.

- EBko ekimen eta sareetan jarrera aktiboa sustatzea, ADITECH Fundazioarekin sinatutako hitzarmenaren laguntzarekin. Era guztietako 1.500 sare baino gehiago daude EBean. Kanpo Ekintzaren Zuzendaritza Nagusiak Nafarroaren interesekin bat datozenen jarraipena egiten du, bereziki gure S3ren (S4) esparruan.

- Europako proiektuen kudeatzaileentzako komunikazio-gida praktikoa prestatzea.

- Programa jakin batzuetan, bereziki POCTEFAn, parte hartzen duten Nafarroako erakundeentzako networking eta laguntza taldeak koordinatzea, NAVARREFA izeneko sarearen, Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen edo Gobernu Departamentuetako, Sozietate Publikoetako eta SINAI agenteetako Europako proiektuen kudeatzaileen foroaren bidez.

- Horri guztiari gehitu behar zaizkio Gobernuaren beste egitura batzuetan dauden beste neurri batzuk:

    » I+G+B finantzatzen duten nazioarteko eta erkidegoko programen proiektuak zehazteko, egiteko eta aurkezteko aholkularitza-gastuetarako laguntzak enpresa, zentro teknologiko, ikerketa-erakunde eta unibertsitateentzat.

    » Nazioarteko lankidetzan I+G proiektuak egiteko laguntzak medikuntza pertsonalizatuaren arloan PerMed 2019 (ezagutza ikertu eta zabaltzen duten erakundeentzat), unibertsitateak, eta ikerketa-zentroak, ospitale publiko edo pribatuak eta enpresak.

    » Nazioarteko lankidetzan I+G proiektuak egiteko laguntzak Fabrikazioko Teknologia Aurreratuen esparruan, MANUNET.

    » Garapen jasangarrirako eta ekonomia zirkularrerako lehengaien esparruan nazioarteko lankidetzan I+G proiektuak egiteko laguntzak, ERAMIN.

    » Zentro teknologikoentzako laguntzak nazioarteko sareetan parte hartzea, bidaiak, ekitaldien antolaketa eta nazioarteko posizionamendua hobetzea aurreikusten duten "EvolTECH" trebakuntza-jardueretarako.

Beste ekintza aipagarri bat Europa+Hurbil laguntza-lerroa da. Bruselako Ordezkaritzak 2018an egin zuen lehen deialdia, Nafarroako enpresei Europako proiektuen esparruan laguntza-deialdietarako eskaintzen dituzten proposamenen kalitatea hobetzeko eta, hala, arrakasta-maila handitzeko aukera emateko. Horrela, Europako funtsak Foru Komunitateko enpresa-sarera erakartzen lagunduko da.

Halaber, 2018an, Bruselako Ordezkaritzaren ekimenez, Nafarroako Gobernuak Topagune Iraunkorrak jarri zituen abian, EBren politikei buruzko informazio-egitura garrantzitsu bat, Nafarroako S3 Estrategiarekin, Automozioarekin eta Mekatronikarekin, Elikadura Katearekin,

Energia berriztagarriekin eta baliabideekin eta Osasunarekin lotutako lau eremuri buruzko informazio-egitura garrantzitsua. Zeharkako beste gai batzuk ere jorratzen ditu: eraldaketa digitala, ekonomia zirkularra, ETEen gorakada eta hiri adimendunak, besteak beste. Europa gure komunitateko eragileetara hurbiltzea da helburua.

Ekintza horien guztien ondorioz, Nafarroako erakunde eta enpresek funts asko bildu dituzte. Adibide gisa, azpimarratu behar da Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek 70 milioi euro inguru lortu zituztela Europan 209 proiekturen bidez. Honako hauek nabarmentzen dira: Horizonte 2020 (24,7 milioi euro), mugaz gaindiko lurralde-lankidetza (24,1 milioi), LIFE (12,5 milioi) eta Erasmus+ (1,9 milioi).

Kanpo-ekintzaren arloan, Gobernua garatzen ari den beste ardatzetako bat da kanpoan bizi diren nafarrekiko harremana sustatzea. Harreman hori, tradizioz, erakunde gisa landu izan da Espainiako eta atzerriko euskal eta nafar etxeekin.

Alde horretatik, eta migrazio-fenomeno berriak ere barne hartzeko asmoz, 2019ko martxoaren 27an, Nafarroako Gobernuak ESTRATEGIA NEXT onartu zuen kanpoan bizi diren nafarrentzako, Foru Komunitatetik kanpo bizi diren pertsonekiko lotura sustatzeko, haien itzulera bultzatzeko, lan-sareak sortzeko, talentu-ihesa saihesteko eta Nafarroa munduan sustatzeko. Estrategia hiru ardatzetan egituratuta dago: “Komunikazioa eta konexioa”, “Atxikitzea eta itzultzea” eta “Lankidetza aktiboa”. Urte horretan bertan sortu zen next.navarra.es plataforma eta sare sozialen ekosistemarekin, newsletter-arekin eta Kanpo Ekintzaren Zuzendaritza Nagusiaren arreta zentralizaturako leihatilarekin batera, Nafarroako Gobernuak kanpoko herritarrekin duen komunikazioa bideratu eta dinamizatzen du.

Azkenik, 2021ean, NEXT RetorNA ekimena aurkeztu eta abian jarri zen, kanpoan dauden nafarrak itzultzeko egoerak bideratzen dituena.

# Ikuspen estrategiko berria

2019an hasitako legegintzaldiak gobernu-egitura berria ekarri zuen, eta Kanpo Ekintzaren Zuzendaritza Nagusia sortu zen Hiritarrekiko Harremanetarako Departamentuari atxikita, ordura arte hainbat departamentutan banatutako unitateak bildu zituena. Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritza, orain Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroako Bulego Iraunkorra izenekoa, egitura berri honi atxikita geratzen da. Egitura horri, halaber, eskumenak ematen zaizkio honako arlo hauetan: kanpoan bizi diren nafarrekiko harremanak, eskualdeen arteko eta mugaz gaindiko lankidetza, Europako gaiak bultzatzea eta funtsak biltzea, eta abar, aurreko legegintzaldian Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako eta Ekonomiaren Garapenerako departamentuen barruan zeudenak, hurrenez hurren. Horrekin, Kanpo Ekintzako politiken estrategia integralagoa garatu nahi da.

Kanpo Ekintzaren Zuzendaritza Nagusia, beraz, Nafarroako Gobernuaren kanpo-jarduera koordinatu, harmonizatu eta profesionalizatzeko asmoz sortu zen, akademikoki diplomazia paraleloa edo instituzionala deritzonaren esparruan. Alde horretatik, KEPak Nafarroak atzerrian duen presentzia indartu nahi du, holistikoki eta ikuspegi osagarri eta lagungarritik, enpresa nazioartekotzeko, lankidetzarako, proiekziorako eta abarretarako beste departamentu batzuen lanari dagokionez.

Testuinguru berri horretan, otsailaren 3ko 7/2021 Foru Dekretuak, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretua aldatzen duenak, honako eskumen hauek ematen dizkio Kanpo Ekintzaren Zuzendaritza Nagusiari:

- Nafarroaren kanpo-ekintza planifikatu, koordinatu eta bultzatzea, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin elkarlanean.

- Nafarroak Europar Batasunean dituen interesak ordezkatzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko beste organo batzuek esleituta izan ditzaketen eskumenen kalterik gabe. Organo horiei bultzada eta laguntza emango die.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Europako eta/edo nazioarteko erakundeen arteko harremanak eta kontaktuak koordinatzea, Nafarroarentzat interesgarriak diren proiektu eta programen jarraipena egiteko.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko unitate organikoekin koordinatzea, Nafarroaren kanpo-proiekzioa indartzeko aukera ematen duten hitzarmen, akordio eta protokoloak ezartzeko Espainiako eta nazioarteko erakundeekin.

- Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroako Bulego Iraunkorreko zuzendaritza.

- Nafarroako Gobernuaren Kanpo Ekintzaren Planaren Garapena.

- Mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetza-harremanak bultzatu eta koordinatzea.

- Kanpoan bizi diren nafarrentzako harremanetarako eta arretarako politika planifikatzea.

- Nafarroaren irudia bultzatzea, kanpo-sustapenaren eta -proiekzioaren bidez.

- Administrazioari itzultzeko laguntza, Europako proiektuetan parte hartuz.

- Indarrean dauden xedapenek Herritarrekiko Harremanetako Departamentuari esleitzen dizkiotenak Zuzendaritza Nagusiaren berezko esparruan, eta bere jardueraren esparruan agintzen zaizkionak.

# Planaren helburuak

## HELBURU OROKORRA

Nafarroako Foru Komunitatearen kanpo-ekintza planifikatu, koordinatu, bultzatu eta bistaratzea, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin elkarlanean, Nafarroa Europako eta nazioarteko eragile global eta bereizitzat hartuz.

## HELBURU OPERATIBOAK

- Nafarroak Europar Batasunean duen presentzia indartzea, Foru Gobernuko beste departamentu batzuekin lankidetzan.(#NavarreInEurope).
- Nafarroaren mugako kokapenari lotutako lankidetza-foroetan loturak indartzea (#Navarra-Transfronteriza).
- Kanpoan bizi diren nafarrekiko arreta eta harremana hobetzea, eta gure eskualdearen irudi erakargarria eta segmentatua ezartzea.

# Ardatz estrategikoak, ekintza-lerroak eta jarduketak

## ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Helburu estrategikoen arabera, KEP hiru ardatz estrategikotan egituratuta dago:

- **1. ardatza.** Nafarroa Europan: diplomazia instituzionala Europar Batasunean.
- **2. ardatza.** Mugaz gaindiko eta eskualde arteko Nafarroa: lankidetza sustatzea.
- **3. ardatza.** Nafarroa munduan: Nafarroaren pertzepzioa kanpoan.

### 1. ardatza. Nafarroa Europan

Nafarroako Gobernuak ageriko bokazio europazalea du eta erabat identifikatzen da Europar Batasunaren balioekin: askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatua, tolerantzia, aurrerapena eta giza eskubideekiko errespetua. EBeko kide izatea garapenerako eta gizarte-kohesiorako faktorea izan da Nafarroarentzat, eta gure komunitatea Europako eskualde aurreratuenen buruan jartzen lagundu du.

Ardatz horretan, Nafarroaren helburu nagusia Europako eskualde lehiakor gisa duen posizioa hobetzea da, zorroztasun-, eraginkortasun- eta berrikuntza-irudia emanez. Irudi horrek berretsi egiten du Nafarroa Europako beste eskualde batzuetarako lehentasunezko bazkidetzat hartzen dela; izan ere, bere tamainagatik eta bere ekosistema publikoaren, sozioekonomikoaren eta berrikuntzaren kalitateagatik, proiektu pilotu berritzaileen probaketa- eta garapen-lurraldea izan daiteke.

Bide hori Nafarroak Europako erakundeetan modu aktibo eta irmoan parte hartuz egin behar da. Horretarako, ezinbestekoa da Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroako Bulego Iraunko-

rrak egiten duen lana, Nafarroako interesentzako funtsezko euskarria baita; izan ere, erakundeen parte-hartzea koordinatzeaz gain, gure komunitatearen antena handia da Europako sareen unibertso konplexua monitorizatzeko, Nafarroak bere interes estrategikoen araberako presentzia neurtua eta selektiboa sustatu behar duelako Europan.

Kanpo Ekintzaren Zuzendaritza Nagusiak tresna berri bat ere badu, Nafarroak Europan duen posizionamendua hobetzen lagunduko duena. Europako Proiektuen Bulegoa (EPB) da tresna, eta haren xedea da, alde batetik, administrazioa nazioartera zabaltzen laguntzea, sektore publikoak Europako aliantzen eta proiektuen garapenean parte hartzea eta finantzaketa osagarria lortzea sustatuz. Bestalde, Europar Batasunak sortzen duen informazio izugarria eragile publiko eta pribatuei eta, oro har, herritarrei modu profesionalizatu eta segmentatuan transmititzeko lan egiten du EPBk.

## 2. ardatza. Mugaz gaindiko eta eskualde arteko Nafarroa

Bere kokapen geografikoagatik, Nafarroa estuki lotuta dago mugaz gaindiko egitatearekin, eta horrek lankidetza-esperientzia aberatsa eman dio esparru horretan. Lankidetza duela ia berrogei urte hasi zen, Pirinioetako Lan Komunitatea sortu zenean. Pixkanaka-pixkanaka, Nafarroa beste lankidetza-foro batzuetan sartzen joan da. Foro horiek mugaz gaindiko hurbileko arazoak konpontzen eta lurraldea Europan kokatzen laguntzen dute.

Ardatz honen helburua da esparru horietan aktiboki parte hartzen jarraitzea eta Nafarroarentzat, haren eragile sozioekonomikoentzat eta, oro har, gizartearentzat onura lortzeko moduko lekuetan egotea.

Auzotasun-arrazoiak, arrazoi kulturalak eta historikoak, kudeaketa publikoan eraginkortasuna izateko arrazoiak eta mugaz gaindiko lankidetzarako arrazoi ekonomikoak daude. Gainera, frogatuta dago katapulta-efektua eragiten duela zenbait eragilek Europako eta nazioarteko lurralde-lankidetzako proiektu zabalagoetara jauzi egin dezaten.

## 3. ardatza. Nafarroa munduan

Nafarroak munduan duen presentzia Nafarroako herritarrak bost kontinenteetan egoteak markatzen du, bai ikuspegi historikotik, eta bai ikuspegi sozioekonomiko eta kulturaletik ere. Bereziki, aurreko belaunaldietan, berriki edo gaur egun, Foru Komunitatetik kanpo beren garapen pertsonala eta profesionala bilatzea erabaki zuten edo erabaki duten gizon eta emakume nafar horiengatik guztiengatik. Haiei zuzenduta dago NEXT Estrategia, kanpoan bizi diren nafarrekiko harremanetakoa, Nafarroako Gobernuak 2019an onartutakoa eta orain Kanpo Ekintzaren Planeko hirugarren ardatz honen gako pieza.

Nafarren konexio eta lotura horrek Nafarroaren ongizate erkiderako aktibo bihurtu behar du. Aldi berean, kanpoan bizi diren gizon eta emakume nafarrak borondatez itzultzea erraztuko duten egoerak sortzeko eta emigratutako talentua erakartzeko neurriak miatu behar dira.

Bestalde, hirugarren ardatz horren barruan, planak marka-irudi bat ezarri eta sustatu nahi du, Nafarroa kanpoan sustatuko duena eskualde berritzaile, kohesionatu, solidario eta sozialki aurreratua den aldetik, kanpoko bazkideak erakarriko dituen eta nafarren artean partaide izatearen sentimendua sustatuko duen irudia.

Azkenik, ardatz horren barruan, Europako eremutik haragoko lurraldeekin nazioarteko harremanak esploratzera eta garatzera bideratutako ekintzak ere jasotzen dira.

## EKINTZA-LERROAK

Zehaztutako hiru ardatz estrategikoek Nafarroako Kanpo Ekintzaren 21–24 I. Plana egituratzen dute, eta horietako bakoitzean hainbat ildo hedatzen dira, jarduera espezifikoak barne. Ekintza-lerro bakoitzak (2. irudia) kode bat (letra) jasotzen du, eta, horri esker, dagozkien fitxetan definitutako jarduerak kodetu ditzakegu.

**2. IRUDIA** ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA-LERROAK - KEP 2021-2024



# JARDUKETAK

# >1. ARDATZA
# Nafarroa Europan

## Helburua

Jarduketa-lerro honek Nafarroak Europar Batasunean duen presentzia indartzea du xede, Foru Gobernuko beste departamentu batzuekin lankidetzan.

## Jarduketa-lerroak eta ekintzak

**A** Nafarroa Europako instituzio eta erakundeetan
**B** Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroako Bulego Iraunkorra (Bruselako Ordezkaritza)
**C** Europako Proiektuen Bulegoa (EPB)
**D** Europako foroak, lankidetzak eta sareak

## A) Nafarroa Europako instituzio eta erakundeetan

### 1. ARDATZA. NAFARROA EUROPAN

**HELBURU OROKORRA**

EB barruan egotea garapen eta kohesio sozialeko faktorea izan da Nafarroarentzat. Alde horretatik, Nafarroak Europar Batasunean duen presentzia indartu nahi da, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin lankidetzan. Europako erakundeetan aktiboki parte hartzea eta erakunde horiek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzea da helburua, Nafarroak Europako eskualdeen barruan duen posizionamendua hobetzeko.

**EKINTZA-LERROA**

### A) Nafarroa Europako instituzio eta erakundeetan

| Zk. | IZENBURUA | UNITATE ARDURADUNA | JARRAIPEN-ADIERAZLEAK | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **A01** | Nafarroak Europako instituzioetan duen parte-hartzea indartzea: Eskualdeen Batzordea, komitologia, Europako seihilekoa, CARUE. | KEZN | Bilerak | 30 | 32 | 34 | 36 |
| | | | Aurkezpenak | 5 | 5 | 5 | 5 |
| **A02** | Gaur egun Nafarroako Gobernuak ordezkaritza duen instituzio eta erakundeei buruzko dokumentu tekniko-dibulgatibo bat diseinatzea. | KEZN | Dokumentuaren sorrera | 1 | 0 | 0 | 0 |
| | | | Komunikazioko ekintzak | 3 | 3 | 3 | 3 |
| **A03** | Nafarroaren antzeko profila (S3 eta S4 berria) duten EBko eskualdeekin akordioak sustatzea, hainbat jarduera-sektoretan lankidetza-proiektuak garatzeko eta baliabide gehigarriak erakartzeko. | KEZN | Akordioak | 3 | 3 | 3 | 3 |
| **A04** | Nafarroak Europako erakundeetan duen presentziari lotutako pertsonak, eragileak eta erakundeak identifikatzea eta koordinatzea. | KEZN | Agenteak | 15 | 15 | 20 | 20 |
| **A05** | Gaur egun Nafarroako Gobernuak ordezkaritza duen sare eta partaidetzei buruzko dokumentu tekniko-dibulgatibo bat diseinatzea. | KEZN | Dokumentuaren sorrera | 1 | 0 | 0 | 0 |
| | | | Komunikazioko ekintzak | 3 | 3 | 3 | 3 |
| **A06** | Europako erakundeek Nafarroako ekitaldietan parte hartzea sustatzea. | KEZN | Nafarroako ekitaldiak EUko hizlarien parte-hartzearekin | 10 | 10 | 12 | 12 |

# B) Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroako Bulego Iraunkorra (Bruselako Ordezkaritza)

## 1. ARDATZA. NAFARROA EUROPAN

**HELBURU OROKORRA**

Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroako Bulego Iraunkorraren (Nafarroaren Bruselako Ordezkaritza) ekintza bideratzailea ezinbesteko euskarria da Nafarroako interesentzat; izan ere, erakundeen parte-hartzea koordinatzeaz gain, gure komunitateko antena handia da Europako sareen unibertso trinkoa monitorizatzeko, Nafarroak bere interes estrategikoen araberako presentzia neurtua eta selektiboa sustatu behar duelako Europan. Bere jarduera indartzea eta Nafarroako eragileen artean bulegoaren ezagutza hobetzea da helburua.

**EKINTZA-LERROA**

### B) Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroako Bulego Iraunkorra (Bruselako Ordezkaritza)

| Zk. | IZENBURUA | UNITATE ARDURADUNA | JARRAIPEN-ADIERAZLEAK | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B01 | Europar Batasuneko Eskualdeetako Lantaldearen lanen eta Nafarroako Foru Komunitatearentzat interesgarriak diren hainbat sareren jarraipena egitea. | Bruselako Ordezkaritza | Bilerak | 10 | 10 | 12 | 12 |
| | | | Aurkezpenak | 3 | 3 | 3 | 3 |
| | | | Txostenak | 1 | 1 | 1 | 1 |
| B02 | Europar Batasuneko erakundeen erabakiak hartzeko prozesuaren jarraipena eta azterketa, eta erakunde horien araugintza-prozeduretan informazioa lortzea, Nafarroako Foru Komunitatearen interesei eragiten dien guztian. | Bruselako Ordezkaritza | Bilerak | 5 | 5 | 5 | 5 |
| | | | Txostenak | 1 | 1 | 1 | 1 |
| B03 | Europako seihilekoetan laguntzea, autonomia-erkidegoek Europar Batasuneko Ministro Kontseiluan parte hartzeko akordioaren esparruan. | Bruselako Ordezkaritza | Bilerak | 12 | 12 | 12 | 12 |
| | | | Seihileko koordinatuak | 1 | 1 | 1 | 1 |
| B04 | Lankidetza-esparru bat ezartzea Espainiako Erresumak Europar Batasunean duen Ordezkaritza Iraunkorrarekin eta Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetako bulegoekin edo Bruselan kokatutako beste estatu kide batzuetako antzeko erakundeekin. | Bruselako Ordezkaritza | Lankidetza-ekintzak | 3 | 3 | 3 | 3 |
| | | | Bilera antolatuak | 6 | 8 | 9 | 10 |
| B05 | Nafarroako Foru Komunitateko sektore publiko eta pribatuari zuzendutako enpresa- eta finantza-aukeren bilaketa aktiboa. | Bruselako Ordezkaritza | Aukerak | 15 | 17 | 19 | 20 |
| | | | Onuradunak | 10 | 12 | 14 | 16 |
| | | | EUko instituzioekiko kontaktuak Nafarroako eragileentzat | 10 | 12 | 14 | 16 |

| Zk. | IZENBURUA | UNITATE ARDURADUNA | JARRAIPEN-ADIERAZLEAK | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
